

Lanberri, enplegua sustatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren 51/2017 FORU DEKRETUA, apirilaren 11koa

KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

250 pertsonatik beherako plantilla duten Bizkaiko enpresek eska ditzakete.

Diru-laguntzak **2016ko irailaren 16tik 2017ko irailaren 15era** formalizatzen diren kontratuentzat izango dira.

Kontratatzeko baldintzak

1. Kontratuek lanaldi osokoak izan behar dute, edo lanaldi partzialekoak, betiere lanaldiak ezarritako ohiko lanaldiaren % 50 hartzen badu gutxienez, kontratua hasten den egunetik eta indarraldi osoan.
2. Ezingo dira langile berarekin bi kontratu desberdinetarako bi eskaera egin. Ezingo dira langile berarekin sei hilabeteko bi kontratu diruz lagundu, ezta sei hilabeteko bat eta hamabi hilabeteko beste bat ere.
3. Kontratuek 6 hilabeteko iraupena izan behar dute gutxienez, eta iraupen jakin batekoak edo kontratu mugagabeak izan daitezke.
4. Kanpoan geldituko dira sei hilabetetik beherako kontratuak eta praktiketako kontratuak.
5. Kontratututako pertsonak Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden lantegietan eman beharko dute zerbitzua. Horrez gain, Bizkaian bizi beharko dute, eta baldintza hori bete beharko dute kontratuak irauten duen aldi osoan.
6. Langileak beren prestakuntza akademiko profesionalarekin bat datozen lanpostuetan kontratatuko dira.

7. Titulu honetan ezarritako kontratuen bitartez kontratatzen diren langileek egiaztatu beharko dute justu kontratua hasi aurretik langabezia egon direla hilabetez. Baldintza hori ez zaie eskatuko praktiketako bekadunei eta kontratatu aurreko hilabetean gehienez ere 5 egunez lan egin dutenei.
8. Eskaera aurkeztu baino lehen, kontratua formalizatu beharko da eta kontratatutako pertsonari alta eman.

Laguntzaren zenbatekoa:

Diru-laguntza soldata gordinaren arabera zehaztuko da, eta soldata gordinaren **% 30 eta % 50 artekoa izango da, kontratuak irauten duen aldiaren gehienez ere urtebetez.**

Diru-laguntza kalkulatzeko aplikatu behar den ehunekoa kontratatuko den pertsonak kontratua formalizatzen den unean duen adinaren arabera ezarriko da:

- **Kontratutako pertsonak 44 urte arte baditu, % 30** aplikatuko da.
- **45 eta 55 urte artean baditu, biak barne, % 40** aplikatuko da.
- **56 urtetik aurrera baditu**, eta kontratua luzaroko langabeen kolektiboko pertsonekin, desgaitasunen bat duten pertsonekin edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonekin egiten bada, **% 50** aplikatuko da.

Epeak

Justifikazioa telematikoki aurkeztuko da, gehienez ere bi hilabeteko epean, diruz lagundutako kontratuak amaitzen diren egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epea **2017ko maiatzaren 2an** hasiko da, 9:00etan, eta **2017ko irailaren 15an** amaituko da, 13:30ean.

Eskaerak aurkeztea

Diru-laguntza hauek jaso nahi dituztenek dagokion eskaera bete eta eskatzen den dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dute, nahitaez Internet bidez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualean.